

TESTIGU ETA ZIRIKATZAILE

ANAITASUNAK lekuko^o izan nahi izan du. Ez testigu soil, hala ere. Akuilari ere ba da. Eta errealitate egile, bizigiro eta kultur-giro xeble hauean izan daitekeen neurritan. Beti zuzen asmatzeko^o uste harroarekin ez bada ere, beti aurrera egin nahi izan du ANAITASUNAK, gure herriaren onerako. Zezenari adarretatik oratu^o nahi izan dio beti ANAITASUNAK. Nork uka? Zein^o ideologiazko hauzetan, zein euskaltzaletasunarenean. Erljiozko arazoetan bezala, hizkuntzaren modernogintzan. Euskal Herrian azken urte hauean bizi bizian zeuden problema guztietan, ANAITASUNAK zeresanik franko izan duelakoan gaude. Hauzi eta arazo horietako batzu azaltzen ditugu hemen. Batzutan, zer egin den aditzera emanez; eta beste batzutan, nahi genukeen jokabidea nolabait iradokiz.^o (Tokirik ezagatik bi artikulu utzi ditugu argitaratu gabe. Hurrengo zenbakian agertuko dira.)

ANAITASUNA eta ideologia

Euskal mugimendu modernoaren barruan ANAITASUNAK nortasunik eta berezitasunik erakutsi badu, ez da ideologia bereziren batengatik izan. Haren nortasuna mugimendu honen ezagugarriekin, alde on eta txarrekin, ageri da. ANAITASUNAREN “ideologiazko berezitasuna”, aldiz,^o ez zen ANAITASUNAREN beraren eta haren etsaien gurari eta ilusio komuna besterik.

Bere jokabideak berezitu eta ezaguerazi du. ANAITASUNA gogorra izan da. Kritikan nahiz uste berrien zabalkundean, beti punta puntan ibili da. Egun,^o moderno eta progresista izan behar da. Eta ANAITASUNAK denetan modernoena eta progresistena izan nahi zuen. Mugimendu modernoaren akatsik haundienak, baina bai eta meriturik haundienak ere, bere gain dituzke^o agian.

Nahasketa: baina, hemen, gauzak berak eta denok gaude nahastuta. Kritika gogorregiak: bere historiak ez du ANAITASUNA gutiago kastigatu. Inon baino haserre biziagoak: labea ere beroago zuen. Sarri, tonu panfletarioaren eta sermoi tonu astunaren artean balantzatu da; baina hori denok egin dugu, ideia eta pentsaera berriak ekarri nahiz, ideiak huts hutsean, gordin gordin, barreiatuz,^o liburuetan edo panfletuetan ikasi bezalaxe. Eta abar.

Baina, oro^o har, eta hutsak huts, ANAITASUNAK bide zuzena hartu du eta zintzo jokatu du. Irristada^o batzuk ez dute inporta. Azken urteotan ANAITASUNAREN interesez eta merezimenduz bete duena, bere izpiritu kritiko eta burrukaria izan da. Zirikalari, zorrotz, probokatibo, mutxurdir^o samar,^o batzutan zerbait apostoliko. Bazterrak astindu ditu. Zenbait kezka eta ezinegoni espresabide eskaini. Hamaika kezka piztu du eta hamaika bultzada eman. Makina bat txisna eta txinpart atera. Bixigarri zen.

ANAITASUNA ez da “gauzak garbi egon arte” zain egon. Ez da beldur izan, handik eta hemendik usteak eta ideiak etxeratzeko, oso segurak ez zirenean ere. Jarrerak^o hartzen jakin du. Soluzio jakinik ez duen problema badugu ere, ANAITASUNA euskal eta sozial zaletasunak elkartzen saiatu zaigu.

Azkeneko hauxe dugu problema nagusia. ANAITASUNAK bide zuzenik asmatu ez badu, beste inork ere ez du egin. Eta horixe da ANAITASUNAREN egin-kizuna hemendik aurrera ere: bilatzen segitzea. Batez ere, ANAITASUNAK orain arteko mugikortasuna, bizitasuna, adorea, kemena inolaz ere ez ditu galdu behar.

Jakina, ANAITASUNAK mugimendu baten barruan ikusi behar du bere burua. Horixe opa diogu: kritiko izan dadila, baina inoiz ere mugimendu horren kontra gertatu gabe. Progresista, baina errealitatearen kontu eginez. Errazegia bailitzateke errealitatean aldean progresistago izatea, eta haien aldean, oainean edo bazterrean talde pribilegiatu bat bilakatzea,^o kanpotik maixeoan^o aritzeko. Herri honi ezin ahantzi zaizkio, iragan dituen joandako ehun urteak.

Jose AZURMENDI

Euskal Elizari begira

Euskal Elizarik ba ote? Atzera begiratzuz, ez da ikusten, benetan “Euskal Eliza” izena eman dakiokkeen instituziorik edo elkarterik. Hala ere, elizgizonek eta hauen ingurukoek *euskaldun* eta *fededun* ideologiazko batasuna zabaltzen saiatu izan dira. Dena dela, Euskal Herri berri bat sortzen ari den hontan, Euskal Eliza baten ametsa ere bidezkoa dela esan daiteke. Etorkizun honi begiratzen diogu ANAITASUNATIK.

Azken urteotan oso ugari dira Euskal Herriaren beren burua fededuntzat aitortu nahi ez dutenak; arago,^o gizartean beren jokabide hori nabarmendu nahi dutenak. Hala ere, antikerikalismo klasiko baten bidez ulertu beharrean, gaurko euskal “fedegabe” askoren jokabideak libertate baten aldeko burruka izan nahi duela dirudi, eta, libertatearekin batera, euskal gizarte ugari baten aldeko burruka.

Euskal Elizaren tradizionalismoa

Euskaldunon azken mendei azaletik begiratzen badiegu behintzat, gure erlijiozko egarria kristautasunak bete duela esan daiteke, bestelako erlijioek ez baitute arrakastarik^o ukan^o lurralde hontan. Sakonagotik begiratzuz, ordea, kristautasunaren bizikeraren barnean kanpotikako elementuak ere aurkituko genituzke. Berbera esan genezake kristautasunaren konfesio desberdinei buruz ere. Europako zenbait herrialdek erlijiozko burruken ondorioen aztarna^o badarama, Euskal Herriari^o ia ez dugu horrelako burrukarik ukan. Eta ez dirudi, hau gure besteen jokaera eta pentsakeren eraman kortasunagatik^o izan denik; bai, ordea, euskaldunon